

artekka



**AMILDEGI
EKOLOGIKOA**

Ekoizpen kapitalista ez da ekoizpenaren anarkia soilik, edo ekoiztu beharreko ondasun kopuruari buruzko neurri sozial kontzienterik eza, planetaren kontsumoa neurriz kanpo handitzea dakarrena. Horrez gain, lurraldearen antolaketa ere bada, subsumituta dagoena ekoizpen kapitalistarentzat egokiena den nazioarteko lanbanaketaren baitan; baita ekoizpen-gaitasunen zentralizazioa eta lurraldeen araberako espezializazioa ere. Horrek berekin dakartza logistika-sare handi bat, hornikuntza-ibilbide luzeak eta ekoizpena lurralde jakin batzuetan kokatzea; eta ez efizientzia ekologiko handiagoa eta lurraldeko baldintza naturalak kontuan hartuta, baizik eta langile-klaseari plusbalioa erauzteko efizientzia handiagoa bilatuta.

Eduki

6

10

26

36

EDITORIALA

Arteka

**Zentralizazio kapitalista
eta degradazio ekologikoa**

ERREPORTAJEA

Mikel Bartolomé

**Kapitalaren eta Naturaren
arteko harreman zitalari
buruzko ohar labor batzuk**

ERREPORTAJEA

Jose Castillo

**Klima-aldaketaren
geoekonomia: naturaren
merkantilizazioa eta
behartutako pobretzea**

KOLABORAZIOA

Alain Arruti

Ekologiaren auziaz

Zentralizazio kapitalista eta degradazio ekologikoa

Editoriala

Gaur egun egunkarietan eta telebistetan tarte handia hartzen duen auzi ekologikoa hondamendi moduan aurkezten zaigu: burgesiaren hedabide guztiek hondamendi ekologikoa saihesteko ahalegin txiki bat eskatzen diguten arren, denek onartzen dute ez dagoela ezer egiterik, ez baikaude prest ahalegin hori egiteko. Izan ere, komunikabide kapitalistetan, arazo ekologikoak helburutzat du langile-klaseari ahaleginak eskatzea eta zapalduen kontrolerako eta autokontrolerako neurriak ezartzea, eta ez kapitalistek planetari eragiten dioten degradazioari konponbidea bilatzea.

Hori argi geratzen da aztarna ekologikoa handitzen ari denean, planetaren suntsipena gero eta handiagoa denean eta albistegia gizakiak salbaziorik ez duela gogorarazten diguten gertaeraz beteta dagoenean. Nola salbatuko du planeta gizabanako batek, bizi den ekosistema suntsitu izanaren erantzukizuna duen arduragabe gisa aurkezten bada etengabe? Nola sor liteke salbazioa, gaitza dela us-ten den horretatik?

Ez dugu auziaren izaera paradoxikoan gehiago sakonduko. Ezta ebidentziaren garapenean ere: Kapitalaren komunikabideek ez dituzte galdera horiek mahaigaineratzen, ez baita haien helburua horiei erantzutea. Kapitalistek ez dute uste planeta salba daitekeenik; egungo egoera politikoari lehia-baldintza eguneratuak ezartzeko aitzakia bezala erabiltzen dute, ez besterik. Baldintza horien bidez, lan-indarraren mundu-mailako esplotaziorako sarbidea erregulatzea bilatzen dute kapitalista talde ezberdinek.

Dena den: tranpa kapitalistak degradazio ekologikoa kontsumitzaile guztien ardurua dela zabaldu nahi badu, erantzuna ezin da izan, inola ere, kontsumoari eta gai ekologikoarekin duen harremanari jaramonik ez egitea; bien arteko, hau da, ekoizpen kapitalistaren eta kontsumo kapitalistaren arteko harremana modu egokian ezartzea baizik.

Ohiko akatsa da kapitalismoan sortzen den arazo ekologikoa ekoizpen-prozesuan soilik ardatzea, hau da, fabrika barnean ematen den jardueran. Akats hori, batez ere, gizartearen gehiengoaren barruan kontsumo-ohiturak aldatzea eskatzen duen ikuspuntu kapitalistari aurka egin nahi diotenen egiten dute. Akatsaren arrazoi nagusia izan ohi da planeta zaintzearekin indibidualki konprometitzeari uko egin nahi izatea, gutxienez egoera aldatuko lukeen etorkizun hobe batera arte; hori, edo ekoizpen-modu sozial bat zer den ez ulertzea.

Lehenengoa etika burgesaren arazo bat da, militantziaren esparruan oso kaltegarria dena. Konpromiso indibidualak beti atzeratzea etorkizun hobe bat heltzen denera arte, etorkizun hori inoiz iritsiko ez dela dakienaren aitzakia usatua bihurtzen da. Bigarrena arazo estrategikoa da, gehienetan errebisionismora eramaten duena.

Kapitalistek ez dute uste planeta salba daitekeenik; egungo egoera politikoari lehia-baldintza eguneratuak ezartzeko aitzakia bezala erabiltzen dute, ez besterik. Baldintza horien bidez, lan-indarraren mundu-mailako esplotaziorako sarbidea erregulatzea bilatzen dute kapitalista talde ezberdinek

Bigarren auzi hori, laburbilduta, honela azaltzen da: ekoizpen kapitalista plusbalio ekoizpena denez, aberastasun “errealaren” ekoizpen guztia, hau da, beharrak asetzeko preste dauden objektuen ekoizpen guztia, etekin kapitalista handitzearen logika nagusiak azpiratzen du, eta horrek esan nahi du ekoizpen-indarren garapenaren bidez handitu egiten dela eraginkortasun ekonomiko handiagoko baldintzetan ekoiztako ondasun kopurua eta, beraz, naturaren esplotazioa. Hortaz, komunisten lana izango litzateke ekoizpenari neurri berri bat ezartzeko, hau da, beharrenean neurri subjektiboa, edo esperientzia askotan gertatu den parekatze kaltegarri hau: komunismoa eta austeritatea berdina dira.

Naturaren suntsiketa Kapitalaren logika produktibistarekin erlazionatzen duen planteamendua zuzena bada ere, modu osatugabea baino ez da hori. Irabazi kapitalista handitzeko logikaren pean gertatzen den ondasunen ekoizpena handitzeak, zeinak balorizazioaren logikak ezarritako mugari baino ez dion erantzuten, natura higatzea eta suntsitzea dakar. Hori egia da; nahikoa da ikuspegi erreformista batetik, baina ez da nahikoa ikuspegi komunistatik.

Ekoizpen kapitalista ez da ekoizpenaren anarkia soilik, edo ekoiztu beharreko ondasun kopuruari buruzko neurri sozial kontzienterik eza, planetaren kontsumoa neurritz kanpo handitzea dakarrena. Horrez gain, lurraldearen antolaketa ere bada, subsumituta dagoena ekoizpen kapitalistarentzat egokiena den nazioarteko lan-banaketaren baitan; baita ekoizpen-gaitasunen zentralizazioa eta lurraldeen arabera espezializazioa ere. Horrek berekin dakartza logistika-sare handi bat, hornikuntza-ibilbide luzeak eta ekoizpena lurralde jakin batzuetan kokatzea; eta ez efizientzia ekologiko handiagoa eta lurraldeko baldintza naturalak kontuan hartuta, baizik eta langile-klaseari plusbalioa erauzteko efizientzia handiagoa bilatuta.

Hori guztia garraioari lotuta dago, hau da, ekoizpen-prozesuan gertatzen den merkantzien mugikortasun espazialari. Ekoizpen-prozesuen zentralizazio erraldoiak, ekoiztako merkantziak urrunago eramateaz gain, lan-indar gehiago mobilizatzea ere badakar. Mobilizazio horrek energia-kontsumo handiagoa eskatzen du eta aztarna ekologiko handiagoa sortzen du; sistema kapitalistari berezkoa zaio hori, nahiz eta, kasu gutxi batzuetan eta muga jakin bateraino, norbanakoaren erantzukizunaren bidez murriztu daitezkeen.

Ekoizpen kapitalistak lanpostutik haratago eragindako gainkontsumo hori ez da energia berriztagarriekin konpontzen. Argi dago gainkontsumo energetikoa eta naturaren degradazioa produkzio-prozesu osoa berrantolatuz soilik konpon daitezkeen elementuak direla. Berrantolaketa hori, jakina, ezin da kapitalismoan egin, irabazia handitzeak zentralizazio kapitalistarako joera baitakar nahitaez, eta, horregatik, higadura ekologikoa handitzeko. Ekoizpena mundu-mailan irizpide ekologiko baten arabera berrantolatzeko, ekoizpen-logika antolakuntza-printzipio komunista berri bat bihurtu behar da, non deszentralizazio kapitalista posible izango den eta ekoizpen-efizientzia handiagoa egokituko den, jasangarritasun ekologikoaren irizpideak betez

Zentralizazioaren printzipio zaharrak, beraz, ikuspegi berri bat hartzen du gizarte komunistan. Kapitalismoaren pean gizarte-antolaketa berri baterako baldintza teknikoak eta sozialak sortzen badiu ere, horren gauzatzeak zentralizazioa birdefinitzea eskatzen du. Izan ere, zentralizazioak ez du esan nahi, nahitaez, industria- eta logistika-zentro erraldoiak eraiki behar direnik, mundu-mailako ekoizpena irizpide arrazionalen eta bateratuen arabera berrantolatu behar dela baizik; hau da, gizarte komunistaren mundu-mailako batasuna, antolakuntza-forman gertatzen dena

Ekoizpena mundu-mailan irizpide ekologiko baten arabera berrantolatzeko, ekoizpen-logika antolakuntza-printzipio komunista berri bat bihurtu behar da, non deszentralizazio kapitalista posible izango den eta ekoizpen-efizientzia handiagora egokituko den, jasangarritasun ekologikoaren irizpideak betez

Kapitalismoa gainditzeak benetako aldaketak dakartza bizitza sozialeko baldintzetan. Baina ez, Kapitalaren propagandistek aldarrikatzen duten bezala –eskuinekoek zein ezkerrekoek–, sakrifizio indibidualen ondorioz, baizik eta pertsonok bizi garen ingurune soziala, eta horrekin batera naturala, benetan iraultzen direlako; eta, horrela, beharrak eta horiek asetzeko behar diren baliabideak aldatzen direlako, bai eta, zalantzarik gabe, gure interes pertsonalak ere

Komunismoak ez du esan nahi autoak ekoizteko gaitasuna handitzen denik, baizik eta horien beharra murrizten dela, ekoizpen sozialaren antolaketa arrazoi objektiboengatik. Komunismoak ez du esan nahi espezializazio-irizpideen arabera antolatuko denik ekoizpena mundu-mailan, irabaziak –eta ez inork kontsumituko ez dituen kontsumo-objektuak– ekoizteko eraginkortasuna handitzea helburutzat hartuta; baizik eta antolakuntza komunistak nazioartean birjabetutako gaitasunak artikulatzea –hau da, ekoizpen-bitartekoak sozializatzea–, modu eraginkorrean eta Kapitalaren despotismoak inposatu ez dituen eskala sozialetan. Horrek, beraz, esan nahi du ekoizpen-prozesuaren mundu-mailako antolaketa berri bat izango dela, honakoa dakarrena: gizarte komunistaren eta bere kideen premiei erantzuteko modurik onena hartzea aintzakotzat gaitasun sozialen antolaketak. Premia horien artean daude gure ingurunearekiko harreman arduratsua eta printzipio ekologiko arrazionala eragokitutako jarduera.

Finean, kapitalismoa gainditzeak benetako aldaketak dakartza bizitza sozialeko baldintzetan. Baina ez, Kapitalaren propagandistek aldarrikatzen duten bezala –eskuinekoek zein ezkerrekoek–, sakrifizio indibidualen ondorioz –sakrifizio horiek sufritu beharreko errutinazko sufrimendu moralen aplikazio jarraitu moduan ulerturik–, baizik eta pertsonok bizi garen ingurune soziala, eta horrekin batera naturala, benetan iraultzen direlako; eta, horrela, beharrak eta horiek asetzeko behar diren baliabideak aldatzen direlako, bai eta, zalantzarik gabe, gure interes pertsonalak ere. Sakrifizio pertsonalak eskatzen dituzten interes pertsonalak dira horiek, baina ez Kapitalaren propagandistek eskatzen dituzten zentzuan. ●


Kapitalaren eta Naturaren arteko harreman zitalari buruzko ohar labur batzuk

Testua — **Mikel Bartolomé**

Irudia — **Martikorena(k)**







«Natura gizakiaren gorputz inorganikoa da; natura, berez, ez da giza-gorputza. Gizakia naturatik bizi dela esateak esan nahi du natura gizakiaren gorputza dela, eta, ez hiltzeko, gorputz horrekin batera jardun behar duela etengabe»

Karl Marx

«(...) Diru-balioa duen animalia basati oro, eta etekinak eman ditzakeen landare basati oro segituan dira sarraskian amaituko den lasterketa baten xede»

Anton Pannekoek

A dark, atmospheric landscape with a hazy horizon and a few birds in flight. The scene is dimly lit, with a gradient from dark blue at the top to black at the bottom. A few birds are visible in flight on the left side of the image.

**«Wall Street natura
antolatzeko modu bat da»**

Jason Moore


Gauza jakina da dagoeneko gizateria bere bizi-oinarriak suntsitzeko prozesuan dela. Gero eta sarriago gertatzen diren fenomenoak dira biosferaren suntsiketa, energia eskasia, behin eta berriz gertatzen diren lehortiak, elikadura krisiak edota baliabide naturalen agortzea. Eta fenomeno horien sakoneko arrazoia kapital metaketaren arrazionaltasunaren menpean gertatzen den gizartearen eta naturaren arteko elkarrekintzan datza. Idazki honen asmoa zera da: batetik, kapital metaketak ezinbestean ingurune naturalaren degradazioa ekartzen duela erakustea, eta bigarrenik, degradazio hori gauzarazten duten fenomeno zehatzak azaltzea.


NATURAREN ETA GIZARTEAREN ARTEKO BATASUNA

Marx, haren lehen ikerketetan, azaltzen ahaleginduzen gizartearen lanaren bidezko erreprodukzioak naturaren eraldaketa kontzientea ekartzen duela. Filosofoak bere 1844ko lehen Eskuizkribu Ekonomiko-filosofikoan azaltzen du ekoizpen-jarduera -lanaren zehaztapenik oinarritzkoena- gizakiaren eta naturaren arteko bitarteko bat dela. Bitarteko hori erabiliz, gizakiak ingurunea eraldatzen du naturak eskura uzten dizkion ondasunak hartzeko eta kontsumitzeko, eta horrela, bere beharrak asetzeko. Gizartearen eta naturaren arteko interakzio metaboliko horren bitartez, gizakiak lantzen duen ingurune naturalaren materialtasuna itxuraldatu egiten du. Azken batean, gizakiaren ekoizpen-jarduerak, objektu erabilgarriak sortzeaz gain, natura eraldatu ere egiten du.

Garrantzitsua da aipatzea, Jason Moorek azaltzen duen legez, gizakiaren eta naturaren arteko harreman metabolikoaren deskribapen hori ikuskera cartesiarraren kontrakoa dela; izan ere, azken horrek harremanaren bi kideak, gizakia eta natura, bi esfera isolatu eta independente gisa deskribatzen ditu. Ordea, naturak eta gizarteak batasun organiko bat osatzen dute. Horrela, antolaketa sozialean gertatzen diren aldaketek beste aldaketa batzuk eragiten dituzte naturan, eta gauza bera gertatzen da alderantziz^[1]. Bi ikuskera kontrajarri horien arteko desberdintasuna ez da metodologia kontu hutsa; izan ere, gizartearen eta naturaren arteko harremana ulertzeko moduak ondorio garrantzitsuak ditu ingurumenean eragiten den kaltearen arrazoi sistemikoak aztertzean.







Gizakiaren ekoizpen- jarduerak, objektu erabilgarriak sortzeaz gain, natura eraldatu ere egiten du

KAPITALOZENOA ALA ANTROPOZENOA?

Gaur egun, magufoek eta zenbait pertsonaia interesatuk izan ezik, pertsona gutxi ukatzen dute hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren degradazioaren arteko harreman estua. Harreman hori era zabalean ikusarazi da ikerketa enpirikoen bitartez^[2]. Alabaina, harreman hori egia hutsa izanik ere, ez du asmatzen ingurumenaren kaltearen azpiko kausak deskribatzen. Harreman horren atzean dagoen argudiaketaren arabera, gizateria da –era abstraktuan– naturaren suntsiketaren azken kausa. Horrela, ideia horren aldekoek adierazten dute gaur egun Antropozenoaren aro geologikoan egongo ginatekeela, giza jarduerak prozesu geofisiko globaletan eta ekosistemetan duen inpaktuak ezaugarritutako aroan^[3].

Gizateria ingurumen-kaltearen azken kausa dela babesten duen ideia azalekoa eta oso problematikoa da hainbat arrazoiengatik, baina, bereziki, gizateria ez delako desberdindugabe-ko osotasun gisa existitzen; ez delako jarduera-batasun homogeneous duen eta agente kolektibo gisa diharduen gizateria abstrakturik existitzen. Hori ezin da gertatu klasetan banatutako gizarte batean. Gizakien eta naturaren arteko egungo interakzioaren eta horrek dakarren ingurumen-kaltearen kausa kapital metaketak eragiten duen gizarte-antolaketa da.

Kapital metaketaren agindupean inposatzen da etekin handienaren bila lehiatzearen arrazionaltasun ekonomikoa. Beste era batera esanda, kapitalismoak baliabide merkeak eta seguruak lortzeko borroka lehiakorra eskatzen du, eta kutsadura, ur eskasia, ekosistemetako kaltea edota baliabide naturalen agortzea bigarren mailako ondorioak baino ez dira. Kapitalak ingurune naturalarekin duen harremanaren helburua ez da naturarekin harreman iraunkor bat ezartzea, baizik eta haren erabilera errentagarria^[4]. Gizarte-antolaketa kapitalista ere, non kapital eta lan inbertsioko erabakiak aginte kapitalistaren esku dauden, natura antolatzeke modu bat da. Aldi berean, ingurunearen kaltearen eta klima-aldaketaren prozesuen jatorria klase-banaketa eta kapitalistek ekoizpen materialaren eta baliabideen gainean duten kontrolean dago. Ez gara Antropozenoan bizi, Kapitalozenoan baino^[5]: gizarte batean zeinetan, azken buruan, Kapitalaren erreproduktzio zabalduak eta burgesia globalak egiten duen Kapital horren metaketak gobernatzen dituzten lanaren antolaketari buruzko erabakiak, baliabideen inbertsioa eta hortik sortzen den naturarekiko harremana.

KAPITALOZENOA ZENBAKITAN

Ingurunearen kalteak klase-izae-ra nabarmena duela aipatzen denean, adierazten da, besteak beste, 2019an munduko populazioaren %10 aberatse-nak eragin zuela CO2 igortzeen %48; aldiz, %50 pobreenak emisio globalen %12 eragin zuen^[6]. Beste era batera esanda, tamainan bost aldiz txikiagoa den talde batek munduko populazioa-ren erdiaren CO2 emisioa baino lau aldiz handiagoa egiten du.

Gainera, prozesu ekonomikoak kontrol kapitalistaren menpean egon-da, garapen teknologikoaren eta zien-tifikoaren xedea etekin handiagoak izatea da, eta, ondorioz, naturarekiko interakzioa jasanezina bihurtzeak ez du axolarik. Plastikoen industriren sorrerak –normalean petrolioaren derribatu kimikoetatik abiatutako poli-mero sintetizatuak– aurrerapen han-dia ekarri zion garapen kapitalistari. Izan ere, petrokimikoetatik eratorri-tako plastikozko produktuak egokiera handiko materialak izaten dira, erraz fabrikatzen dira, eta haien ekoizpe-nak oso kostu txikiak ditu. Hori bai, plastikoaren erabilera masiboarekin batera dator ingurumenaren degra-dazioa. Ekonomia Lankidetzeta eta Ga-rapenerako Antolakundearen (ELGA) 2022ko txosten bateko datuen arabe-ra^[7], urtean 350 milioi tona plastiko ekoizten dira. Eta kontua da hondakin plastiko guztiak ez direla behar bezala tratatzen: urtean gutxi gorabehera 19 milioi tona plastikok lurreko ingurune naturaletan, ibaietan, kostaldeetan eta itsasoetan amaitzen dute^[8].

Harreman hori egia hutsa izanik ere, ez du asmatzen ingurumenaren kaltearen azpiko kausak deskribatzen. Harreman horren atzean dagoen argudiaketaren arabera, gizateria da –era abstraktuan– naturaren suntsiketaren azken kausa

Motor elektrikoak bultzatutako ibilgailua da erakundeen lehen auke-ra gaur egungo garraio ereduak era-giten dituen CO2 igorpenak saihesteko –barne-errekuntzako ibilgailuetan oinarritua dago eredu hori-. A priori, kutsatzen ez duen energiak bultzatuta-ko ibilgailuak orokortzea aurrerapauso handia izan beharko litzateke inguru-menaren kaltea murrizteko, baina auto elektriko estandar baten 80 kWh-eko litio bateria bat ekoizteko, 2,4 eta 16 tona arteko CO2 emisioak izaten di-ra. Konparazio batera, gasolio motorra duen ibilgailu batek 10.000 eta 64.000 arteko kilometro kopurua egiten igorriko lukeena. Gainera, digitalizazioa-rekin eta elektrifikazioarekin zerikusia duen industriak litioa, kobaltoa edota nikela bezalako lehengai oso espezifi-koak behar ditu, eta elementu horiek fintzeko eta prozesatzeko, agente kimi-ko kaltegarriak eta ur kantitate izuga-rri handiak erabili behar dira.



Kapitalismoak baliabide merkeak eta seguruak lortzeko borroka lehiakorra eskatzen du, eta kutsadura, ur eskasia, ekosistemetako kaltea edota baliabide naturalen agortzea bigarren mailako ondorioak baino ez dira





Kapitalak, halaber, naturarekiko jasangarritasun gutxiko energia-erabilera ekartzen du. Metaketaren logikak –hau da, Kapitalaren izaria etengabe haztea– baliabideen erabilera jarraitua eskatzen du, eta horren konfigurazio praktikoak ezinbesteko egiten du energia fosila. Egungo energiaren kontsumoa 1950ekoa baino sei aldiz handiagoa da, eta, energia-iturri berriztagarrietatik lortzen den energia kantitatea gero eta handiagoa den arren, energia kantitate hori munduan kontsumitzen den guztiaren bosten bat baino txikiagoa da. Munduan erabiltzen den iturri fosilen energia kantitatea ez da hazi besterik egin azken hamarkadetan⁹¹. Izan ere, energiarekin lotutako industria-jarduera errentagarri-errietako bat da kapitala inbertitzeko eskura dauden ekoizpen arloen auzkeren artean: gaur egun, Blackrock inbertsio funts erraldoia da Repsol, Enagas eta Iberdrolaren lehen akzioduna.

Nabarmendu behar den beste gai garrantzitsu bat lurraren erabilera kapitalista da. Nekazaritzara bideraturiko lur proportzioa eta nekazaritzak behar dituen baliabideen kopurua gero eta handiagoak dira. Bizitzeko egokia den planetako lur guztiaren %50 nekazaritza-ekoizpenerako erabiltzen da. Are gehiago, mundu mailan erabiltzen den ur gezaren %70 nekazaritzara bideratzen da, eta jarduera hori da akuiferoen kutsaduraren ia %80ren eragilea. Nekazaritza eta abeltzaintza industriaren handitasunaz jabetzeko, azkenik, nabarmentzekoa da abereek animalia ugaztun guztien %94 hartzen dutela eta, aldiz, animalia basatiek, %6. Horrekin batera, baso-soiltzea izan da nekazaritza eta abeltzaintza industriaren ekoizpena handitzeko baliabide garrantzitsuenetako bat.

Ongarrien erabilerak –lurraren emankortasuna eta laboreen errendimendua handitzeko balio dute– garrantzi berezia dauka garapen kapitalistarako. Izan ere, historian zehar ongarriak eskura izateak eta erabiltzeak baldintzatu dituzte metaketa globalaren zikloak. Era berean, nitrogenoa bezalako ongarri ez-organikoak, zeintzuen erabilera hamar aldiz handitu den azken sei hamarkadetan, ekosistemen eta ur baliabideen kutsaduraiturri handiak dira.

Metaketaren arrazionaltasunaren pean –eta horrek dakartzan baliabideen ahitzearen eta garestitzearen pean– ezarri diren naturarekiko harremanak hain kalte handiak ditu egun, ezen harreman hori arazo bihurtu baita garapen kapitalistak aurrera jarrai dezan. 70eko hamarkadatik aurrera, agintariak eta zientzialariak modu serioagoan hasi ziren aintzat hartzen ingurumen arazoengatik kezka, baita arazo horien eta jarduera ekonomikoaren hazkundearen arteko harremana ere. Hala ere, arazo horiei aurre egiteko proposamen gehienek merkatua mekanismo eraginkor gisa ikusten zuten baliabideak banatzeko. Horrela, euren proposamenek ideia hau zuten ardatz: merkatu-pizgarrien bidez –zergak, jarduera batzuk murriztu nahi izanez gero, ala laguntzak, zenbait jarduera bultzatu nahi izanez gero– eta erregulazioaren bidez posible izango litzateke baliabide naturalak modu efizienteagoan eta jasangarriagoan erabiltzea. Gaur egun, hori da oraindik ere gehiengoaren ikuspegia.

(...) ekonomia globalaren % 3ko hazkunde ekonomikoa eskatzen da –kapitalaren metaketa betierekoaren metafora besterik ez da–; horretarako, baliabide natural merkeak erabili behar dira etengabe, eta aldi berean, “naturarekiko harreman harmoniatsua” ezarri nahi da

Adibidez, erakundeek klima-aldaketari aurre egiteko proposaturiko neurri garrantzitsuenetakoak dira isuri-eskubideen erregimenak, jatorri fosileko erregaien gaineko zergaren ezarpena edota energia berriztagarria ekoizteko dirulaguntzak. Bestalde, ingurumenaren degradazioaren erantzukizuna kontsumitzailearenera eta haren aukera pertsonaletara lekualdatzen dute, eta, horretarako, produktu ekologikoak eta tokiko kontsumo mugimenduak sustatzen dituzte.

Horrela, saihesti ezin duten kontrasean batean erortzen dira nazioarteko erakundeek, hots, kapital globalaren aginte politikoei jasangarritasun globalaren arloan hartzen dituzten erabaki estrategikoak. NBEk ezarritako eta estatu kide guztiek bultzaturiko Garapen Jasangarriko Helburuek argi eta garbi adierazten dute gai hori: ekonomia globalaren %3ko hazkunde ekonomikoa eskatzen da –Kapitalaren metaketa betierekoaren metafora besterik ez da–; horretarako, baliabide natural merkeak erabili behar dira etengabe, eta aldi berean, “naturarekiko harreman harmoniatsua” ezarri nahi da. Ikusi dugunez, kapital globala metatzeko prozesuaren lehiakortasun-aginduek ingurumenaren degradazioa dakarte. Gainera, garapen kapitalistak

lan-indarraren produktibitatea handitzeko duen joera kontuan hartu behar da. Izan ere, Kapitalak lan indarra kapital konstantearekin ordezkatzen du –eta lan indar bizia kanporatzen du lan indar soberakin gisa–. Kapitalaren joera horrek arazoa larriagotu du. Kapitalaren erakundeak irtenbiderik gabeko kalezulo moduko batean daude, ekonomiaren geldialdiaren, ingurumenaren kolapsoaren eta gainpopulazio erlatiboaren gorakadaren artean. Azken prozesu hori lan-indarra sistematikoki kanporatuz egiten du Kapitalak^[10]. Naturarekin harreman iraunkorra duen eta baliabide naturalen erabile-ra jasangarria egiten duen gizarte bat izateko aukera bakarra hau da: gizarte horrek Kapitalarekin eta haren etekinak lortzeko lehiaren arrazionaltasun ekonomikoarekin amaitzea, eta produkzioaren inguruko erabakiak kapital metaketaren irizpideen menpeko kontroletik askatzea. ●

BIBLIOGRAFIA

- [1]** Moore, J. W. (2020). *El capitalismo en la trama de la vida: ecología y acumulación de capital*. Madrid: Traficantes de sueños.
- [2]** Hickel, J., & Kallis, G. (2020). Is green growth possible? *New political economy*, 25(4), 469-486;
- [3]** Steffen, W., Persson, Å., et al. (2011). The Anthropocene: From global change to planetary stewardship. *Ambio*, 40, 739-761.
- [4]** Saito, K. (2022). *La naturaleza contra el capital: El ecosocialismo de Karl Marx*. Bellaterra.
- [5]** Moore, J. W. (Ed.). (2016). *Anthropocene or Capitalocene? Nature, history, and the crisis of capitalism*. Pm Press.
- [6]** Chancel, L. (2022). Global carbon inequality over 1990–2019. *Nature Sustainability*, 5(11), 931-938.
- [7]** OECD (2022), *Global Plastics Outlook: Economic Drivers, Environmental Impacts and Policy Options*, OECD Publishing, Paris.
- [8]** Konparazio bat egiteko: masa kantitate hori AHTko 50.000 trenen baliokidea izango litzateke.
- [9]** Energy Institute - Statistical Review of World Energy (2023)
- [10]** Alami, I., Copley, J., & Moraitis, A. (2023). “La «perversa trinidad» del capitalismo tardío: gobernar en una era de estancamiento, humanidad sobrante y colapso medioambiental.” *Contracultura*.





Klima-aldaketaren geoekonomia: naturaren merkantilizazioa eta behartutako pobretzea



Datozen urteetan lur planetak eta gizateriak hil ala biziko erronka bati egin beharko diogu aurre, kolapso ekologikoa saihesteko itzulerarik gabeko puntua gainditzear baitago. Klima-aldaketa geldiarazteko, enpresak, gobernuak eta nazioarteko erakundeak hainbat plan prestatzen ari dira, baina, hondamendi naturala saihesteko eraginkorrak izatetik urrun, hutsune handiak erakusten ari dira. Izan ere, merkatuaren eta lehiaren logika kapitalistetan oinarritzen dira plan horiek eta, areago, klima-aldaketaren kostuak langile-klaseak eta periferia globalak ordaintzea bilatzen dute.

Testua — **Jose Castillo**

Irudia — **Maitane Lizarraga**

Urtero legez, 2024aren hasieran, munduko kapitalistarik handienak lider politiko nagusiekin bildu ziren Suitzako Davos hirian. Munduak etorkizun hurbilean dituen erronkei buruz eztabaidatu zuten; baina, beti ere, haiek guztiek defendatzen duten sistema kapitalistaren biziraupena bermatu nahian. Munduko Ekonomia Foroak, edo Davosko Foroak, bere *Arrisku Globalei buruzko Txostenean* ohartarazi zuenez, datozen hamar urteetan planetak izango dituen hamar arrisku handienetako bost ingurumenari lotuta daude: muturreko gertaera klimatikoak, ekosistemen aldaketa drastiko eta atzeraezinak, biodibertsitate galtzea, baliabide naturalak agortzea eta muturreko kutsadura.

Kapitalista handiek diotenez, sistema kapitalistak aurre egin beharreko arazo handien erdia dira sistema bera planetan uzten ari den aztarnaren ondorio. “Seigarren espezie-suntsipen masibo posiblearen erantzuleak gara, baina, erantzun eta ondorio okerrenak saihesteko posizio paregabe batean ere bagaudela” ondorioztatu du txostenak. Hala ere, txostenak nahita ahaztu du denok ez garela hondamendi ekologikoaren eragileak, baina, hala eta guztiz ere, bai ondorioak, bai konponbideen zama langile-klasearen gain eroriko direla. Esan gabe doa horiek eragin handiagoa izango dutela periferia globaleko langile-klasean.

Oxfamen 2023ko txosten baten arabera, biztanleriaren %1ek %66 pobreenak beste karbono dioxido ekoizten du, eta, erregai fosilen ustiapen intentsiboaren bidezko ekoizpen kapitalistaren ondorio zuzenak alde batera utzita, luxuzko bizimodua da Oxfamen txostenak erakusten duen desoreka handi horren arrazoi nagusienetako bat. Luxuzko bizimodu horrek barne hartzen ditu, hala nola, etengabeko hegaldiak, auto handiak gidatzea, etxe ugariren jabetza edota dieta oso aberatsa. 2023an bertan, Klima Aldaketari buruzko NBERen Konferentzia (COP28 modura ezagutzen dena) Arabiar Emi-

erri Batuetan egin zen, erregai fosilen ekoizle eta esportatzaile nagusietako bat, eta, gainera, Dubaiko estatuko petrolio-konpainiaren zuzendariak inaurratu zuen.

Arazoa sortzen duten berberak arazo horrek ondorioak eta konponbidearen zama modu desorekatuan banatu nahi dituzte, hori, baldin eta konponbiderik badago. Artikulu honen helburua nazioarteko erakunde nagusiak, potentzia globalak eta enpresa handiak klima-aldaketa geldiarazteko diseinatzeko ari diren planei sarrera bat egitea da. Horretarako, karbono-isuriak murrizteak dakarren lehia geopolitikoan eta horrek langilerian izango dituen ondorioetan eta zametan jarriko dugu fokua.

Oxfamen 2023ko txosten baten arabera, biztanleriaren %1ek %66 pobreenak beste karbono dioxido ekoizten du

BA AL DAGO KLIMA- ALDAKETAREN AURKAKO PLAN GLOBALIK?

Klima-aldaketa geldiarazteko nazioarteko planez ari garenean, NBEk bultzatu duen eta modan dagoen 2030 Agenda datorkigu burura denoi. 2015ean abiarazi zuten Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda, eta hamabost urteko plan bat ezarri zen, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) deritzen hamazazpi azken helburu erdiesteko. Munduan pobrezia eta gosea desagerrarazteko baieztapen hotsandikotik hasi eta hiri iraunkorrak sortzeko eta ekosistemak babesteko helburuetaraino doaz helburu horiek. Beraz, hasiera batean, munduko estatu guztiak biltzen dituen erakundeak diseinatutako planaren helburuak izango lirateke klima-aldaketa geldiaraztea eta mundu berdinzaleago baterako baldintzak sortzea.

Alabaina, helburuok borondatezko adierazpen bat baino ez dira, eta ez dute behartzen estatu bakar bat ere horiek lortzeko neurri eraginkorrrak hartzea. Foro askotan, batez ere eskuin muturrekoetan, elite globalista jakin batzuek diseinatu duten plan batekin parekatzen dute 2030 Agenda, eta diote puntuz puntu ezarriko dela, norbanakoaren askatasun osoa zein nazioen berezitasunak ezabatu arte. Hala ere, hori ez da agenda horren eta NBERen beraren izaera, mundu-mailako hegemonia lortzeko borrokan jarduten duten burgesien eta estatuen tentsio interinperialisten mende baitaude etengabe. Beste era batera esanda, ez dago elite globalik; mundu-mailako sistema bat dago, kapitalismoa, hegemonia politikoa eta ekonomikoa lortzeko etengabeko borrokan diharduten hainbat burgesiak osatzen dutena.



Horregatik, 2030 Agenda ez da herrialdeen arteko berdintasunezko parte-hartze prozesu baten ondorioz ezarritako adostasun bat: desirazko gogoetak dira, eta konponbideak emateko aginduak baino gehiago erronken deskribapen bat eskaintzen dute. Izan ere, gobernu nazionalak ziurtatu dute agenda horrek ez ditzala ezertara behartu. Horrela, helburu noble horiek babesten dituztelako irudia eman dezakete, baina, egiazki, desparekotasuna eta baliabide naturalen agortzea areagotzen dituen logika politikoa eta ekonomikoa mantentzen jarrai dezakete. 2030 Agendari egin dakioken kritikarik handiena ez da norbanakoaren askatasuna ezabatuko duelako izaera konspiranoikoa; baizik eta aurpegia zuritzeko plan bat dela eta ez dela beteko, Kyotoko protokoloa edo Milurteko Helburuak bete ez ziren bezala.

2030 Agenda ez da herrialdeen arteko berdintasunezko parte-hartze prozesu baten ondorioz ezarritako adostasun bat: desirazko gogoetak dira, eta konponbideak emateko aginduak baino gehiago erronken deskribapen bat eskaintzen dute

Hain zuzen ere, 2030 Agenda bederatzi urtez ezarri ondoren, NBEk berak onartzen du urrun daudela CO2 emisioak murrizteko eta ekosistemak babesteko klima-helburuak betetzetik. NBEk 2023aren amaieran egindako balantzean, onartzen du planetako lur-ekosistemaren hiru laurden eta itsas ingurumenaren %66 inguru nabarmen aldatu dituela gizajarduerak. Energia fosilak eta energiariak kutsagarrienak ere munduko biztanle gehienek eguneroko errealitatea dira. Adibidez, 2.300 milioi pertsonak ikatzaren, kerosenoaren edo biomasa-solidoen mende jarraitzen dute janaria prestatzeko erregai nagusi gisa. Sukalde garbirik ez izateak ia 3,7 milioi heriotza goiztiar eragiten ditu urtean, eta emakumeak eta haurrak dira arriskurik handiena pairatzen dutenak.

NORK ORDAINDUKO DU HONDAMENDIA?

2030 Agendak ez ditu gobernu nazionalak neurriak hartzera behartzen, baina 2015eko Parisko klimaren goi-bileran gobernu arteko akordio bat lortu zen, tenperatura globalaren batez besteko igoera 2 gradu zentigradutara mugatzeko, industrializazio aurreko mailekin alderatuta. Halaber, mende honen amaieran 1,5 graduko kota ez gainditzeko eta 2050ean klima-neutraltasuna lortzeko ahaleginak handitzea adostu zen. Horretarako, funtsezkoa da atmosferara isurtzen diren berotegi-efektuko gasak murriztea. Hau da, giza jarduerak atmosferara askatutako CO2 (berotze globala eragiten duen gas nagusia) kantitatea hustubide naturalek xurgatzen dutenaren balio-kidea izatea, basoek, kasu.

***2030 Agenda bederatzi urtez ezarri
ondoren, NBEk berak onartzen
du urrun daudela CO2 emisioak
murrizteko eta ekosistemak babesteko
klima-helburuak betetzetik***



Kontua da gas horien emisiorik handiena industria-ekoizpen kapitalistan sortzen dela, eta, ondoren, garraioetako mugikortasunean, hala nola hegazkinetakoa edo auto pribatuetakoa. Karbono dioxidozko gas-masa handi bat sortzen dute horiek. Baina industria-ekoizpen kapitalistaren beharrek etengabe hedatzen egon behar duen metatze-prozesua gelditzea ekarriko luke. Hori dela eta, gobernu gehienak bultzatzen ari diren planak pertsonen auto pribatuko mugikortasunaren tasazioan oinarritzen dira, bai eta teknologia ekologikoetarantz joko duen industriaren balizko birmoldatze batean ere. Eta hori, azken horrek metaketa kapitalistaren erritmoari eutsiko diolakoan, metaketa horren hedapena murriztu beharrik gabe.

Argi dagoena zera da, Mendebaldeko erdi-mailako klaseen bizi-eredua amaitzen ari dela. Bizi-eredu horren adierazgarri zen auto pribatu baten jabetza izatea. Autobia guztiak ordainpekoak bihurtzeko plan bat bultzatzen ari da Europar Batasuna. Era berean, hirien erdigunean gidatu ahal izateko, gero eta gehiago da derrigorrezkoa auto moderno eta karbono-isuri txikiagotzen baten jabe izatea. Helburu horiek logikoak dirudite, aurre egin behar diogun klima-erronkaren ondorioz, baina langile-klasearen soldadak eta bizi-mailak etengabe devaluatzen diren testuinguru batean ezartzen direnez, langilearen zati handi bat mugikortasunetik kanpo geratzea ekartzen dute. Bitartean, gizarteko geruzarik aberatsenak mugikortasunerako eskubideari eusten diote, arazo handirik gabe.

Adibidez, Europan auto elektrikoak ezartzean, Europako lanaren banaketaren eskema desorekatua errepikatzen ari da, iparraldearen eta periferiaren arteko haustura nabarmenarekin. Jato automobilgintzako aholkularitza-entresaren datuen arabera, auto elektrikoak Europako iparraldeko merkatu-kuotaren %15 bereganatu zuen 2022ko hirugarren hiruhilekoan, eta hegoaldean, berriz, %3,8, ia lau aldiz gutxiago. Norvegia da ibilgailu elektrikoaren salmentan liderra, lau matrikulaziotik ia hiru elektrikoak baitira. Urrun, bigarren postuan, %34,5eko kuotarekin, Islandia du atzetik. Suediak osatzen du podiuma, non 2022ko uztaila eta iraila bitartean saldu ziren auto berrien %30,1 elektrikoak izan ziren. Txanponaren beste aldean hegoaldeko estatu periferikoak daude, hala nola Espainia, Italia edo Grezia, non auto elektrikoaren salmenta %4koa baino baxuagoa den. Espainiako kasuan, elektrikoak %3,51ko kuota du.

Hala ere, gasolinazko eta dieselezko ibilgailuak ezabatzeke Europako planak martxan jartzeko ez da aintzat hartu, batetik, auto elektrikoak modu ekitatiboan hedatu ote den, eta, bestetik, ba ote dagoen ibilgailu horiek ordezkatzeko dituen garraio publikoko sistema indartsurik, biztanleriaren geruza guztientzat dagoena eskuragarri. Gainera, gasolina-autoak ekoizti dituzten enpresa handi berberen gain ari da erortzen ibilgailuen birmoldaketa. BMW, Volkswagen, Audi eta Porsche enpresak zigortu ditu Bruselak, isurketak murrizteko teknologia garatzearen aurka egiteagatik, baina, aldi berean, auto elektrikoak garatzeko eta ekoizteko Europako funtsen kuotarik handienak jasotzen ari diren enpresatako batzuk dira hauek.

Esan daiteke klima-aldaketari aurre egiteko nazioarteko planak ekologiarik komertzializazioan oinarritzen direla. Hau da, trantsizio ekologikoa egongo da soilik errentagarria bada. Izan ere, atmosferara isurtzen diren gas kutsagarrien kuotak burtsan saltzen eta kitzatzen dira. Munduko Bankuak Bio-Karbono izeneko funts bat du 2004az geroztik, karbono-gasak isurtzeko eskubideak salerosteko. Horren ondorioz, erosteko ahalmenik handiena duten enpresek etengabe atzeratu ahal izango dute berotegi-efektuko gasak murrizteko helburua, eskubide horiek erosita.

Azken batean, langile-klasearen mugikortasun-eskubidea mugatzen den bitartean, ez da gauza bera geratzen enpresek sortzen dituzten isuri-kopuru handiekin. Klima-aldaketa geldiarazteko nazioartean hamaika plan egin diren arren, industria kapitalistaren arazoak da errentagarriago izaten jarraitzen duela erregai fosiletan inbertitzeak energia garbiko proiektuetan inbertitzea baino. Energiaren Nazioarteko Agentziaren arabera, petrolioaren eta gasaren industrian erabilitako kapitalaren errentagarritasuna %6tik %9ra bitartekoa izan zen 2010etik 2022ra, eta, aldiz, energia garbiko proiektuena %6tik beherakoa izan zen. Gainera, industria-birmoldaketarako plan guztiek eragin desparekoa dute gune inperialistan eta periferiako proletarioengan, artikulua hau amaitzeko ikusiko dugun bezala.

DESKARBONIZAZIOAREN BALDEA

Auto elektrikoa sartzea, CO2 gasak murrizteko beste neurri batzuk bezala, ez da, berez, larrialdi klimatikoaren irtenbidea. Mugikortasunari eusteko asmoz (errentagarritasun kapitalista murriztuko ez den kantitate batean) auto elektrikoa modu masiboan sartzeak bigarren mailako ondorioak ditu. Argi dago auto elektrikoek ez dutela karbono dioxidozko gasik isurtzen, baina auto horiek egiteko litioa edo koltana bezalako mineralak behar dira. Material horiek erauzteak ondorio suntsitzaileak eragiten ditu horiek dauden ekosistemetan.

Auto elektrikoaren funtzionamendurako litiozko ioien bateriak behar dira, eta litioa ekoizteaz gain, beharrezkoa da beste metal arraro asko ekoiztea. Munduko litio-erreserbarik handiena lurpean dago Txileko Andeetako mendikatean, gehienbat Atacamako gatzagaren inguruan. Ura gatzaga horietatik atera eta iragaziz lortzen da litioa. Beraz, litioa biltzeko, beharrezkoa da lurpeko ur hori ponpatzea. Arazoa litio kantitate handiak lortzeko ponpatu behar diren kantitate izugarrietan datza. Izan ere, kalkuluen arabera, meatze-enpresa bakar batek, segundoko, 1.700 litro lur azpiko ur ateratzen ditu mineral baliotsu hori lortzeko.

Auto elektrikoa modu ekitatiboan hedatu den kontuan izan gabe ari dira aurrera eramaten gasolinazko eta dieselezko ibilgailuak ezabatzeko Europako planak, baita ibilgailu horiek ordezkatu dituen garraio publikoko sistema indartsu eta biztanleriako geruza guztientzako irisgarri bat ote dagoen kontuan izan gabe ere

Ur-ponpaketa masibo horrek ondorio izugarriak ditu inguruko ekosistemetan, Andeetako Atacama eskualdeko habitat osoan lehortea eta ur falta sortzen baititu. Adibidez, inguruko espezieen elikadura-katea hausten du gatzaga horietako ur gazietan bizi diren espezie asko hiltzean, edo edateko uraren eskasia sortzen du inguruko biztanleentzat, lurpeko ur horiek gatzagabuz lortzen baita edateko ura.

Gauza bera esan daiteke koltanaz, zeina beharrezkoa baita kotxe elektrikoetarako txipen ekoizpenerako. Hori, gehienbat, Kongoko Errepublika Demokratikotik ateratzen da, munduko herrialderik pobreenetako batetik. Meatzeetan ateratzen da, non lan esklaboa eta haurren lana ohi-koak diren, baina, horrez gain, hura masan erauzteak akuiferoak eta uztasoroak kutsatzen ditu. Beraz, erregai fosilen kontsumoa murrizteko neurri ustez ekologikoak hartzea (GJHen oinarria), askotan, periferia globaleko baliabide alternatibo berrien espoliozazioan oinarritzen da, eta horrek inpaktu ekologiko atzerazinak ditu.

Thomas Wiedmann ingurumen-zientzialariaren ikerketa baten arabera, deskarbonizazio-prozesua uzten ari den aztarna materialak aise gaintzen du planetak jasan dezakeen baliabide naturalen erauzketa-erritmoa. Izan ere, litioaz eta kobaltoaz gain, teknologia garbiak ekoizteko, aluminioa, altzairua, burdina edo kobrea era masiboan lortu behar dira. Ikerketa horretako datuen arabera, baliabide naturalen guztizko kontsumoa 26.700 milioi tonakoa zen 1970ean, aldiz, 2010eko hamarkadan, 100.000 milioi tonatik gorakoa izan zen. Eta, 2050erako, zifra hori 180.000 tonara iritsiko dela kalkulatu da. Hau da, deskarbonizazio prozesua, paradokiko badiurdi ere, baliabide naturalak erauztean eta agortzean oinarritzen da.

Hala ere, mugikortasun zibilaren eremuko isurketak murriztu nahi diren bitartean, nahita ahazten da potentzia kapitalista nagusien armadek uzten duten karbono-aztarna, AEBetako buru dela. Armada estatubatuarra munduko petrolio kontsumitzaile handiena da eta, horren ondorioz, berotegi-efektuko gasen igorle nagusietako bat. Pentagonoko berotegi-efektuko gasen urteko emisioak 59 milioi tona karbono dioxido baino gehiagokoak dira. Nazio-estatu bat balitz, armada estatubatuarra munduko 47. igorlerik handiena izango litzateke, Portugal, Suedia edo Danimarka baino emisio handiagoekin.

Eta armada estatubatuarra etengabe ari da hedatzen petrolio eta erregai fosilen baliabideen gaineko interes estatubatuarrek planeta osoan zehar babesteko. Gainera, tentsio geopolitikoek, AEBen armadak hegemonia globalari eusteko sakonago lan egin behar izatea ekarriko dute, eta, horrekin, haren karbono-aztarna areagotzea.

Adibidez, munduko merkatu kapitalistan ondorio zuzenak dituen aldaketa klimatikoetako bat itsasarte komertzialen ur-mailaren murriztea da. Panamako Kanaleko uretatik munduko merkataritzaren %3 igarotzen da, eta Ozeano Atlantikoa eta Ozeano Barea lotzeko funtsezkoa da. Kanala lehortea jasaten ari da, euririk ez dagoelako, eta horrek itsasontzien joan-etorria murriztera behartu du azken hilabeteetan.

Aldi berean, Yemengo erresistentzia Mendebaldeko merkataritza-ontziei eraso egiten ari zaie Bab el-Mandeb itsasarteko uretan, Palestinako herriaren aurkako genozidioarekiko elkertasunez. Horrek kolokan jartzen du munduko merkataritza, merkataritza-bideak lotzen dituzten estugune nagusietako bi arriskuan baitaude. Horregatik, Estatu Batuek itsas armada Itsaso Gorriko uretara eraman behar izan dute, ontzi militarrek kontsumitzen duten erregai fosil kantitate han-

dia kontuan hartu gabe.

Gainera, tentsio geopolitiko inperialistek elikagaiak garestitzea eragiten dute, elikagaiak garraiatzeko bide asko blokeatzen baitira, Ukrainako gerraren ondorioekin ikusi zen bezala. Elikagaien garestitze orokor horrek, lehenik eta behin, periferiako proletarioei eragiten die. Izan ere, bertako estatuek kanpo-zor izugarria dute, eta horrek bereziki ahultzen ditu elikagaien prezio globalaren edozein gorakadaren aurrean, elikagaien erosketa ezin dutelako finantzatu. Gaur egun, munduko 195 herrialdeetatik, gutxienez 34 ez dira gai beren janaria ekoizteko, ur- edo lur-mugak dituztelako. Afrika iparraldean eta Ekialde Hurbilean kokatuta daude gehienak.

Beraz, garapen kapitalistak bere zatien garapen desberdina sortzen duen bezala, zentroa eta periferia sortuz, klima-aldaketaren kudeaketa bera garapen ekologiko desparekoa sortzen ari da. Garapen ekologiko despareko horren ondorioz, zentro inperialistako eskualdeetako erregai fosilen murrizketak oinarritzat du teknologia berde berrietarako beharrezkoak diren baliabide naturalak periferian erauztea. Gainera, baliabide horiek bermatzeko lehia militarrek periferia globaleko eskualdeak kolpatzen dituzte batez ere.

Erregai fosilen kontsumoa murrizteko neurri ustez ekologikoak hartzea, askotan, periferia globaleko baliabide alternatibo berrien espoliazioan oinarritzen da, eta horrek inpaktu ekologiko atzeraezinak ditu

ONDORIOAK

Azken batean, nazioarteko gobernuak eta erakundeek klima-aldaketa geldiarazteko sortutako plan guztiak metatze-prozesu kapitalistaren hedapena mantentzean oinarritzen dira. Baina hori inkoherentzia bat da bere berezko terminoetan, metatze-prozesu kapitalista errentagarritasunaren mende baitago, eta kolapso ekologikoa saihesteko baliagarriak izan daitezkeen metodoen alde soilik egingo baita baldin eta errentagarriak badira. Horren aurrean, oraingoz ikusten ari gara langile-klasearen geruzen gain ari dela erortzen kolapso ekologikoa saihesteko zama, eta mugikortasun eskubidea mugatzen ari zaiela, kontuan izan gabe, gehienetan, auto kutsatzaile hori soldatapeko lanera joateko behar izaten dutela langile horiek.

Garapen kapitalistak bere zatiaren garapen desberdina sortzen duen bezala zentro- eta periferia-harremanak sortuz, klima-aldaketaren kudeaketa bera garapen ekologiko desparekoa sortzen ari da

Bien bitartean, industria-birmoldaketa berdea kostu ekologikoak lurralde periferikoetara kanporatzean oinarritzen da, eta horiek ordaintzen dituzte sistemaren zentroko eskualdeetan karbono-emisioak murrizteko hartzen diren neurriak, baliabide naturalen erazketa masiboaren truke. Kolapso ekologikoa saihesteko, litekeena da orain arte normaltzat jotzen genituen bizimodu jakin batzuk murriztu edo modu kontzientean kontrolatu behar izatea, hala nola oporretarako ohiko hegaldiak edo gasolina-autoaren eguneroko erabilera. Baina murrizketa hori, berdintasunez eta kontzienteki egin nahi bada, ezin da lehiaren eta merkatu kapitalistaren lege itsuen pean utzi, horiek baitira aurre egin behar diogun berehalako kolapso ekologikoaren eragile nagusiak. ●



BIBLIOGRAFIA

Castillo, J (2022). *Bienvenidos al capitalismo de escasez*. El Salto, abuztuak 17.

Granda, M (2022). *La desigual carrera hacia el coche eléctrico: el norte cuadruplica en cuota de ventas al sur europeo*. CincoDías, azaroak 26.

Munduko Ekonomia Foroa (2024). *Global Risks Report 2024*, World Economic Forum, Geneva.

Nazio Batuak (2023). *A mitad de camino hacia los objetivos mundiales: un balance*. Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuentzako web-orria.

Nazioarteko Energiaren Agentzia (2023). *World Energy Outlook 2023*. International Energy Agency.

Oxfam (2023). *Climate Equality: A Planet for the 99%*. Oxfam International, Oxford.

Roberts, M (2022). *Climate Change and Wars*. The Next Recession blog, apirilak 9.

Saito, K (2022). *La naturaleza contra el capital: el ecosocialismo de Karl Marx*. Bellaterra Edicions, Bartzelona.


Saito, K (2022). *El capital en la era del Antropoceno*. Penguin Random House Grupo Editorial, Bartzelona.

Smith, N (2015). *La naturaleza como estrategia de acumulación*, García Herrera, L. M. eta Sabaté Bel, F. eds. *Gentrificación urbana y desarrollo desigual*. Icaria, Bartzelona.

Wiedmann, T et al. (2015). *The Material Footprint of Nations*. Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America, 112(20), 6271-6276 or.

KOLABORAZIOA

EKOLOGIAREN AUZIAZ





Testua — **Alain Arruti**

Irudia — **Lander Moreno Lizarraga**

Gizakiaren eta naturaren arteko harreman metabolikoak lehenengoak bigarrenkoa erabat menperatzen duen egoera batera ekarri gaitu. Gaur egun ezin da ulertu naturan izaten den prozesu bat bera ere, bertan gizakiak utzi duen aztarna kontuan izan gabe. Are gehiago: Lur planetaren historian lehenengo aldiz, bizitza-sistema konplexuko elementu batek, behar duen neurrian, biosfera guztiaren bilakaera historikoa norabidetu du. Gizakiaren interbentzioa arazo bilakatu da mundu naturalaren egonkortasunarentzat. Alabaina, arazo hori gizakiaren eboluzio historikoaren nahitaezko ondorio bat izatetik urrun, Kapitalaren harreman sozialaren mundu-mailako hedapenaren ondorio da. Kapitalismoaren eta mundu naturalaren suntsiketaren arteko lotura da, beraz, idazki honen abiapuntua.

Auzi ekologikoaren inguruko hausnarketa politiko bat da lerro hauetan landu nahi izan dudana, bertan agertzen diren ideien ekoizle eta, hortaz, erantzule bakarra ni neu izanik. Baina, esan beharrean nago, urgentziazko egiteko bat dela ekologiaren auziaren inguruko tesi politiko iraultzaileak garatzea; hau da, gure garai historikoaren gai garrantzitsu bat den heinean, sozialismoaren borroka iraultzailearen baitan auzi ekologikoa integratzea, maila guztietan.

KAPITALA ETA NATURA; AUZIRAKO HURBILKETA MARXISTA BAT

Marx gazteak berebiziko garrantzia eman zion naturaren eta gizakiaren arteko harremanari 1844 urteko eskuizkribuetan^[1]. Lehenengo eskuizkribuan honakoa dio: “Natura gizakiaren gorputz inorganikoa da [...], besterendutako lanak, ordea, 1) natura gizakiaz kanpoko zerbait bihurtzen du 2) bere buruaz kanpoko zerbait ere bihurtzen du; bere bizi-funtzioez kanpoko [...] mundu objektiboaren ekoizpen praktikoa, hau da, natura inorganikoaren elaborazioa, gizakiaren izate generikoaren baieztapena da [...] besterendutako lanak, baina, gizakiari berak ekoiztiko objektua erauzten dionean, bere izate generikoa ere erauzten dio, eta animaliarekiko duen abantaila desabantaila bihurtzen da, bere gorputz inorganikoa, natura, kentzen baitio”^[2].

Marx gaztearen alienazioaren teoriaren zutarrietako bat da kapitalismoak berekin dakarrela gizakiaren bertute naturalen besterentzea, hau da, kontzientziaren galtzea; izan bere gorputz organikoaren jabetzaren galeraren bitartez, ala izan bere gorputz inorganikoarekiko (naturarekiko) harremanaren galeraren bitartez. Fenomeno hori gertatzen da lan abstraktuaren dinamikaren baitara barneratzen delako gizakiak bere existentziarekiko duen ulerkera markoa, eta berak ekoiztiko produktuarekiko historian zehar duen harreman zuzena diruarekiko harreman abstraktu bihurtzen delako.

Alienazioaren teoriaren bidetik, baina, ezin liteke azaldu gizakiaren eta naturaren harreman historikoan gertatzen den hausturaren nolakotasuna; nolakotasun horren zergatia azaldu daiteke, Marx gazteak zuen ikuskera humanista-naturalista oinarri harturik. Alabaina, kapitalismoaren barne-legeen estudio sistematikoa, eta, hortik, sozialismo iraultzailearen euskarri zientifikoa Marx zaharraren obran aurkitu behar da; batez ere, *Kapitala* lanean.

Haustura metabolikoaren eskolakoek^[3] defendatzen dute, mendebaldar marxismoak historikoki ulertu duenaren aurka^[4], Marx zaharrak ez duela albo batean uzten Marx gazteak kapitalismoaren eta naturaren arteko harremanaz zuen ulerkera Kapitalaren ekonomia politikoari buruzko bere ikerketan, baizik eta metabolismoaren kontzeptuaren barruan integratzen duela.

Haustura metabolikoaren teoria, motzean, ho-

Lur planetaren historian lehenengo aldiz, bizitza-sistema konplexuko elementu batek, behar duen neurrian, biosfera guztiaren bilakaera historikoa norabidetu du

nakoa da: natura ziklo eta prozesu biokimikoetan oinarritzen den era berean oinarritzen da gizartea ere. Gizakiak, bizi nahi badu, nahitaez eraiki behar du harreman bat naturaren metabolismo unibertsalarekin^[5]. Harreman hori hierarkikoa da. Giza-metabolismoa, hau da, gizartea mugiarazteko beharrezkoa den antolamendu soziala, naturaren metabolismo unibertsalaren parte da^[6]. Giza-metabolismoaren eta naturaren metabolismo unibertsalaren artean gertatzen den hartu-eman historikoan haustura bat gertatzen da, ordea, kapitalismoaren etorrerarekin. Gizakiak, lehen aldiz, naturaren zikloak eta prozesuak baldintzatzen ditu metabolismo sozial kapitalistaren beharrak naturaren erresilientziarako gaitasunaren gainetik jarrita, eta bi instantzien arteko harreman hierarkikoa alderantzikatuta. Gizadiaren historian lehen aldiz, naturaren metabolismo unibertsala gizakiaren metabolismo partikularrean barneratzen da.

Marxek, besteak beste Fosterren eta Saitoren arabera, haustura metabolikoaren kontzeptzioaren bitartez azaltzen ditu 1) lurraren emankortasun naturalaren gainbehera, lur-zoruko nutrienteen zikloak etetearen ondorioz^[7], 2) garapen zientifikoa eta teknologikoa berriek, harreman sozial kapitalisten baitan, naturaren esplotazioa handitzen dutela, lurraren degradazioan sakonduz eta haustura metabolikoa hedatuz, eta 3) hirira transferitutako nutrienteek zaborraren eta hondakinen metaketa dakartela eta horrek poluzio-arazoak dakartzala^[8].

Haustura metabolikoak, beraz, sistema baten



metabolismoan izandako haustura ekologikoa esan nahi du, eta, Saito parafraseatuz, ekologia-krisiak bere historikotasunean ulertzeko aldazio metodologiko eraginkorra erakusten digu^[9]. Horrela, haustura metabolikoaren eskolak, ekosozialismoaren bigarren belaunaldi bezala ere ezagutzen denak, kapitalismoaren eta naturaren gainbeheraren inguruko azalpen indartsu bat eskaintzen du.

Eskola horren lanetatik^[10] eratorzen dira, nire iritziz, auzi ekologikoaren tesi politikoak garatzeko hainbat oinarritzko printzipio:

- Harreman sozial kapitalisten hedapenaren ondorioz giza-metabolismoaren eta naturaren metabolismo unibertsalaren artean izan den hausturak atzeraezinak diren ondorioak ekarri ditu, naturak duen erresilientziarako gaitasunaren gaintetik, kapitalismoaren behar ekonomikoak jarri baitira.
- Errentagarritasuna etengabe bilatzeari lotuta gertatu da kapitalismoaren bilakaera historikoa eta, hori, harreman sozial kapitalistari berezkoa zaion zerbait da. Giza-gorputzak ura adina behar du kapitalismoaren gorputz metabolikoak aberastasunaren metaketa.
- Naturaren esplotazioa zentzu kuantitatiboan (baliabide ahalik eta gehien merkataritza-dinamikan barneratzea) zein kualitatiboan (zientziaren eta teknologiaren aplikazioaren bitartez, baliabide natural baten errentagarritasun mailak igotzea) gertatzen da kapitalismoan, eta elementu giltzarria da Kapitalaren konposizio organikoarentzat.
- Kapitalismoaren funtzionamendu metabolikoa posible egin duen aldagai erabakigarrietako bat zentro-periferia harreman inperiala izan da, eta baliabide energetikoen arpilatzearen bitartez funtzionatu ahal izan du mendeetan zehar.

Giza-metabolismoaren eta naturaren metabolismo unibertsalaren artean gertatzen den hartu-eman historikoan haustura bat gertatzen da kapitalismoaren etorrerarekin

KRISI EKOLOGIKOA

“Patroi klimatiko ezagunak eta itsasertz egonkorak dituen Lur planeta hau erabateko arriskuan dago. [...] Azaleratzen den konklusioa honakoa da: Lurrean erabateko jarraikortasunez esplotatzen diren erregai fosilek ez dituzte gure artean bizi diren milioika espezie bakarrik jartzen arriskuan, baizik eta gizakiaren beraren biziraupena ere kolokan dago eta dugun denbora-tartea uste genuena baino txikiagoa da”^[11].

Hitz horiekin hasten da James Hansenen *Storms of My Grandchildren* liburua. Agian garai hartan mundu-mailako espezialista handienetakoa zenak urteak zeramatzan krisi klimatikoaren ondorioz pairatu genitzakeen ondorio lazgarrien inguruan hitz egiten.

Ez da harriztekoa: giza-jardunaren ondorioz naturaren barne-funtzionamenduan izaten ari diren aldaketek erabat eraldatu dezakete orain arte eza-gutu dugun ingurune naturala.

Antropozenoaren aro geologikoan, giza-zibilizazioaren garapena baimendu duten baldintza biofisikoak aldatzen ari dira. 2009. urtean Johan Rockström zientzialariak gidatuta, Stockholm Resilience Centreko hainbat ikerlarik milurte hauetan munduan egon den oreka arrakalatu dezaketen bederatzi adierazle ekologiko izendatu zituzten, hala nola: 1) klima egonkortasuna, 2) ur gezaren eskuragarritasuna, 3) fosforo- eta nitrogeno-zikloak, 4) ozono geruza, 5) biodibertsitate galera, 6) ozeanoen azidotzea, 7) lurraren erabileran eraldaketak, 8) elementu biokimikoak eta 9) entitate berrien sorrera. Bada, bederatzi muga biofisiko horietako bakar bat gurutzatzeak, gure gizarteen egonkortasuna kolokan jartzea ekarriko lukeela adierazi zuten. Bederatzi adierazle horiek “bederatzi muga planetarioak” bezala ezagutzen dira, eta naturak modu egonkor batean irauin dezala bermatzen duten prozesuak edo zikloak dira. Bada, Stockholm Resilience Centrek duela egun gutxi argitaratu du bederatzi muga planetarioen gaur egungo egoera neurtzen duen ikerketa^[12], eta bertan adierazten diren emaitzen arabera, bederatzi muga planetario horietatik sei (ur gezaren eskuragarritasuna, klimaren egonkortasuna, entitate berriak egotea, biodibertsitatearen galera, lurraren erabileran aldaketak eta ziklo biokimikoak) gainditu dira jada.

Esan beharrik ez dago muga horiek gaintitzeak ekar ditzakeen kalteak izugarriak direla. Gaur egun ezin liteke ziurtzat jo gizadiaren epe luzerako biziraupena, ez behintzat, bizi-baldintza kuantitatibo zein kualitatibo hauetan. Bederatzi muga planetario horiek bederatzi ziklo edo prozesu bereizi adierazten badituzte ere, gehientsuenek elkar-harreman estua dute. Esaterako, fitoplanktonak eta landareek aireko karbono dioxidoa xurgatzen dute fotosintesi-prozesuan. Lurzoruaren erabilera-aldaketen ondoriozko biodibertsitate galerak atmosferako CO₂-a hartzeko ahalmena duen prozesu horren efizientzia murriztea dakar. Horrekin batera, atmosferako karbono kantitatea areagotzeak, berotegi-efektuaren bidez, lurreko tenperatura igotzea dakar. Horrek, besteak beste, ozeanoen azidotzea dakar, itsas-ekosistemetak maskordun izakien biodibertsitatean zuzenean eraginez.

**Uste denez,
aspaldi zeharkatu
genituen erregai
fosilen erauzketan
oinarritutako gizarte
bat eusteko dauden
muga biofisikoak**



KAPITALISMOA BIDEGURUTZEAN

Gurutzatu ditugun sei muga planetarioek erakusten digute Lurra, gaur egun, ez dela espazio seguru bat gizakiarentzat. Hala ere, koiunturari erreparatuz, eta egoera ekonomiko-politikorako hurbilpen bat egin nahi badugu, beharrezkoa da krisi klimatikoaren inguruan modu berezian jardutea.

IPCC-aren^[3] arabera, 1859-1900 eta 2006-2015 urteen artean, munduko tenperatura 1,07°C igo da. Igoera horrek eraginda, mundu-mailako hondamendi klimatikoaren maiztasuna eta tamaina asko handitu dira, hala nola; lehorteak, zikloiak, akuiferoen gatzatzeak, suteak, eta abar^[4]. Lurraren batez besteko tenperaturak gora egiten jarraituz gero, gaur egun ziurtzat jotzen den moduan, hondamendi horiek ekarriko lituzketen kalteak ikaragarri handituko lirarteke.

Bestalde, erregai fosilen zundaketarako geroz eta baliabide gehiago behar dira. Petrolio eta gas-hobi eskuragarrienak aspaldi hustu ziren, eta hobi berrietara sarbidea izateko beharrezkoak diren kostuak geroz eta handiagoak dira. Horrek erregai fosilean oinarritutako energiaren errentagarritasunaren krisia ekarri du. Bestalde, mix energetikoaren barruko proportzioak, hau da, gizartearen ekoizpen-harremanak abiarazteko eta mantentze-

ko behar diren energia ezberdinen (petrolio, gas, ikatza, ura, haizea...) multzoko proportzioak, aldatzen ari dira. Kapitalismo garaikidearen behar ekonomikoak sostengatzeko beharrezkoa den elektrizitate kantitatea handitzen ari da.

Batetik, petrolioaren erauzketa hazkorraren muga gaintzeak (2005. urtean egunero 70 milioi upel ateratzen ziren batez beste, eta gaur egun 60 milioi inguru dira^[5]) energia-iturri alternatiboetara jo behar izatea ekarri du (petrolio pisutsua, *fracking*-aren bitartez ateratako gasa, eta abar). Hala ere, uste denez, aspaldi zeharkatu genituen erregai fosilen erauzketan oinarritutako gizarte bat eusteko dauden muga biofisikoak. Gure gizartearen metabolismo energetikoaren oinarria erregai fosila bada, hura ezin dute ordezkatu energia berriztagarriek. Berriztagarrien bitartez elektrizitatea sortzen da eta, gaur egun, ez dago baliabide teknikorik elektrizitateak gasolioa edo gasa ordezkatzeko; hau da, energia-iturri fosilen errekontzarekiko oso menpekoak diren prozesu asko (garraioa, esaterako) modu masiboan elektrifikatzeko.



(...) kapitalismoaren erronka historiko nagusietako bat da hazkunde ekonomikoa eta karga ekologikoa banantzea

EUROPAREN PLAN EKONOMIKO-POLITIKOA

Emilio Santiagok^[16] dio politika pentsatzeko orduan bi elementu daudela: batetik, egiaren bilaketa eta, bestetik, balio etiko-politikoaren eraikuntza (eta, dudarik gabe, bigarren hori dela estrategikoki erabakigarria). Extinction Rebellion, Fridays For Future, Sunrise Movement eta antzeko egitasmoen diskurtsoaren oinarria zera da: egin diezaietela zientzialariei kasu. Baina, munduari krisi ekologiko betean gaudela ikusarazteak ez dakar, bere horretan, naturarekiko dugun hondamenezko harremanaren aurrean neurriak hartzea, munduaren eta giza-zibilizazioaren artean harreman orekatuago bat sortzeko.

Davosko mundu-mailako ekonomia-forotik, mundu-mailako arriskuen inguruko inkesta^[17] bat argitaratu berri dute. Inkesta horretan, mundu-mailako 1.490 adituk eta agintarik euren iritzia ematen dute epe laburrera (bi urte) eta ertainera (hamar urte) munduak berak izango dituen arriskuen inguruan. Inkesta horretan, parte-hartzaileen %70en ustez, munduak ekologiararen bilakaerari lotuta oso larriak izango diren eraldaketak jasango ditu datozen hamar urteetan.

Esan liteke munduko goi-agintariak zientzialariei kasu egin dietela eta hondamendi klimatikoaren hipotesia gehien-gehienek onartzen dutela egun. Norabide horretan, eta erregai fosilekiko dugun dependentziaren ondorioz agertzen zaigun arazo bikoitza dela-eta (krisi energetikoa eta krisi klimatikoa), kapitalismoaren erronka historiko nagusietako bat da hazkunde ekonomikoa eta karga ekologikoa banantzea.

Javier Mileik, Argentinako presidente denak, Davosko foroan egin zuen hitzartzean giza-historian metatutako Barne Produktu Gordinarean (BPG) eboluzioa izan zuen hizpide, kapitalismoaren ezartze-garaietatik aberastasunaren produkzioak izan duen erabateko igoera ikusarazteko^[18]. BPGaren bilakaera historikoa grafiko batean jarriz gero, hockey makila baten antza duen grafiko bat ateratzen omen dela esan zuen. Bada, gizakiak mundu-mailan historian zehar eragin duen kutsaduraren grafikoak hockey makila berdinarekin antza du. Argi adierazten da istorio berdinarekin korrelatua direla aberastasunaren metaketa eta kutsadura, eta giza-metabolismoak naturaren metabolismo uni-bertsalean eragindako hausturaren bitartez lortu dela aberastasun hori. Kapitalismo berdearen edo Kapitalak bizirauteko duen plan estrategikoaren zutarrria korrelatu horren amaiera izango litzateke, hau da, energia-iturri kutsakorrekiko dependentzia murriztuz, hazkunde ekonomikoa ziurtatzea.

Nahiz eta gutxienez 2016tik banantze horren erretolikarekin jardun, datuek adierazten dute energia fosilarekiko dependentzia ez dela murrizten ari, ez termino absolutuetan, baina ezta termino erlatiboetan ere^[19]. Hala adierazi zuen Josu Jon Imazek ere Davosko foroan^[20].

Laugarren Industria Iraultza da, kapitalismo teknologikoaren profeta handientzat, metabolismo sozial kapitalista bidegurutzetik aterako duen aurrera-jauzia. Mundu-mailako ekonomia-foroan duela hamarkada bat baino gehiago proposatu zen maila globaleko eraldaketa teknologikoa hori. Hainbat neurri eta aplikazio teknologikoren multzoa da; Martin Goitiandiak^[21] ondo azaltzen duen moduan, oinarritzat ditu digitalizazioa, Adimen Artifiziala, IOT (*Internet Of Things*), robotika aurreratua, *Big Data* eta bestelako hainbat teknologia.

(...) potentzia atlantistek hegoalde globala esplotatzeko eta giza metabolismoa erreproduzitzeko beharrezkoak diren baliabideak arpilatzeke izan duten inpunitate historikoa kolokan dago

Teknologia berri horien oinarri energetikoa elektrizitatearen denez, modu substantziazalean jaitsiko litzateke karbonoarekiko dugun dependentzia^[22]. Elektrizitate beharrak zentzu konparatiboan asko haziko lirateke, eta giza-metabolismo ekojasangarriago batera igaro ahalko ginateke.

Ehun ekonomikoaren tamaina horretako eraldaketa batek erregai fosilen kontsumoaren beharra ordezkatzea lortuko lukeelako ideiak nahiko sinesgaitza badirudi ere (adibidez, garraioa edo mineralen ustiaketa bezalako sektore estrategikoen pisuak gora egingo luke eta horiek erregai fosilekiko duten dependentzia erabatekoa da), egun ikusten dugun arazorik larriena da Laugarren Industria Iraultza hori ez dela gertatzen ari. Ez behintzat zentzu planifikatu batean. Hala ere, Kapital handiak hipotesi horrekiko dituen esperantzak ez dira murriztu. McKinsey *Think Tank* estatubatuarren arabera, 2010etik 2021era bitartean, Laugarren Industria Iraultzara urtero bideratzen den finantziarioa %319 hazi da^[23].

Ez bada energia fosilarekiko dependentzia murrizten, indarra hartzen du hondamendia gerta litekeelako hipotesiak, baina horrek ez du esan nahi mendebaldar zibilizazioaren gainbehera etorriko denik, nahitaez. Hondamendiari aurre egiteko guztiok elkar laguntzeko ideia bezain arrazionala da, hain zuzen ere, guztion artean lehiatzeko ideia. Alegia, litekeena da, ekoizpen-abiadura globala murriztu behar bada, hori modu asimetrikoan gertatzea eta posizio geopolitikorik indartsuena duten herrialdeek beraien bizi-kalitatea mantendu ahal izatea, lurralde periferikoak are gehiago pobretuz.

Gertatzen dena da, gaur egun, ezin dela esan modu absolutuan zein dagoen edo, hobeto esanda, zein egon litekeen posizio ahulean. Mendebaldar bloke politikoaren hegemonia zalantzan dago, eta potentzia atlantistek hegoalde globala esplotatzeko eta giza-metabolismoa erreproduzitzeko beharrezkoak diren baliabideak arpilatzeke izan duten inpunitate historikoa kolokan dago.

Trantsizio energetikoaren programa ekonomikoa ezin da Europako estatuak hartzen ari diren beste neurrietatik aparte ulertu. Krisi klimatikoaren eta energia-krisi globalaren aterabide bat baino, Europaren krisi aldeaniztunari aurre egiteko plan estrategikoaren inguruan hitz egin behar da. Plan horrek honako zutarri hauek ditu:

- Metaketa-krisiaren aurrean, errentagarritasun-iturri berriak bilatzea. Laugarren Industria Iraultzaren aukera-baldintzak esploratzea eta, gertatzen bada, mundu-mailako abangoardian egotea.
- Europak hegoalde globalarekiko duen dependentzia energetikoa murriztea, elektrizitatearen ekoizpen-ahalmena handitzearen bitartez eta sektore estrategikoen elektrifikazioaren bitartez.
- Krisi energetikoaren ondorioz etor daitezkeen gatazka militarretarako prestatzea (baliabideen kontrola bermatzeko kanpo-gerrak).
- Krisi klimatikoaren ondorioz etor daitezkeen gatazka politikoetarako prestatzea (migrazio-fluxu erraldoiak, hondamendien ugaritzea, eta abar).

HONDAMENDIAREN AURKA, DESAZKUNDEA?

Auzi ekologikoaren inguruko diskurtso politikoa, batez ere, 70eko hamarkadatik aurrera garatu zen Mendebaldean. Erromako Klubaren *Hazkundearen Mugak*^[24] txosten famatuaren argitalpenak hasiera eman zion arazo ekologikoaren inguruko mota guztietako literatura politikoari. Eric Hobsbawnen ustez^[25] ez zen harritzekoa, garai horretan, industriari aplikatutako garapen teknologikoaren ondorioz, kutsadura eta narriadura ekologikoa benetako mehatxu bihurtu baitziren potentzia handien bizimoduarentzat edo, behintzat, hala haute-man zen ezkerreko espektrora zabal batean.

Garai historiko horretatik, eta, batez ere, autonomia politikoaren borroka-zikloen ajetik etorri zen desazkundearen kontzeptua.

Gaur egun, esan genezake, *desazkunde* hitzak ikuspegi politiko-ekonomiko ezberdinen familia bat ordezkatzeko duela, egungo krisi ekologiko planetarioaren aurka, hazkunde ekonomiko mugagabea eta esponenziala giza-aurrerapenaren definizio gisa arbuia duena eta espektrora zabal horren katebegi funtzioa bete nahi duena.







Plusbalioaren erauzketa bada kapitalismoaren funtzionamenduaren oinarria, krisi ekologikoaren testuinguruan, kapitalismoaren barne-dinamika ekonomikoa ekologikoki bideragarria izateko modu bakarra da, hain zuzen ere, plusbalioa modu ekologikoan erauzteko metodoa asmatzea

Desazkundearen printzipio orientatzailea, moztzean, datorrena da: etengabeko hazkunde ekonomikoari lotuta gertatu bada garapen kapitalista (zentzu historikoan) eta erregai fosilekiko dependentzia erabatekoa izan bada hazkunde horren printzipio motorra, etengabeko hazkundearen dinamikarekin moztea beharrezkoa da gizarte jasangarriak eraiki nahi baditugu. Haratago joanda, hazkuntzan oinarritutako sistema ekonomikoa kontsumismoarekiko mendekotasun erradikala dakar, gure benetako beharrak asetzearekin zerikusi gutxi duena. Irtenbidea hazteari uztea da, gizateria guztiak bizirik iraun dezan.

Desazkundearen printzipio politikoa ulertu nahi bada, ekonomiaren oreka-egoeraren teoria ezinbesteko zutarria da. Nolabait, kapitalismoaren barruan hazteari uztea posible delako ideia baten sor-tutako teoria ekonomikoa baita. Desazkundearen aldeko figura garrantzitsuenetako batzuk (Serge Latouche, Nicholas Georgerescu-Roegen eta Herman Daly) teoria ekonomiko horren bultzatzaile nagusienetakoak dira. Horrek agerian uzten du desazkundearen kontzepzioaren bilakaera historikoa hertsiki lotuta egon dela kapitalismoaren kritika utopiko bati, zeinetan garapen teknologiko etengabearekin eta giza-gaitasunak hobetzearekin, Kapital handia gai baita industria-gizarte helduetako produkzioan aurrerapen kualitatibo etengabeak sustatzeko, eta, aldi berean, modu progresiboan lan-baldintzak hobetzen eta lanaldia murrizten joateko.

Giovanni Arrighik^[26] azaltzen duen moduan, Adam Smith da ideia horren lehen defendatzailea. Arrighiren esanetan, Smithek uste zuen, edozein herrialdetako aberastasuna hazten zen heinean,

irabazien tasa gutxitzen zela eta inbertsio-aukerak urriagoak zirela. “Aberastasun-maila osoa” lortzen duen nazio horretan, oreka-egoeran edo egoera egonkorrean sartuko litzateke gizartea, kapital- eta pertsona-fluxu iraunkorrarekin.

Jauzi hori modu automatikoan eman ez bada ere, hau da, hazkunde kuantitatiboaren goia jotzeak kapitalismoa egoera egonkorreko ekonomia baterantz eraman ez badu ere, teoriaren alternatiba boluntaristago bat eskaintzen saiatzen da Latouche^[27], desazkundearen ulerkera kapitalista bati lotuta eta hura kapitalismoaren kritika marxistatik bereizita, esaten baitu:

- Ekobateragarria den kapitalismoa bideragarria dela, behintzat teorian.
- Keynesianismoan oinarritutako erregulazio-neurriek kapitalismoa otzandu ahal dutela.
- Desazkundeak ez dituela ezbaian jartzen ez jabetza pribatua, ez eta lanaren eta Kapitalaren arteko harremana ere.

Esan genezake utopikoa dela desazkundearen adierazpen kapitalistaren oinarria erregulazio erreformista delako ideia. Ekonomia politikoaren kritika oinarri harturik behintzat, Estatu ezin da ulertu merkatuarekiko autonomia den egitura politiko bezala^[28]. Paradoxikoki, Latoucheren desazkundearen adierazpenak (zeina desazkundearen alde eta *Green New Deal*-en aurka jarduten duten teoriko batzuen erreferentia den^[29]), teoriarik gautu ahal izateko, proposamen erreformista onartu beharra dauka, nahitaez.



Plusbalioaren erauzketa bada kapitalismoaren funtzionamenduaren oinarria, krisi ekologikoaren testuinguruan, kapitalismoaren barne-dinamika ekonomikoa ekologikoki bideragarria izateko modu bakarra da, hain zuzen ere, plusbalioa modu ekologikoan erauzteko metodoa asmatzea, ekoizpen-bitartekoen energiaren indar-motorea karbono isurketatik bananduta.

Bestela, erregai fosilen etekin energetikoa energia berriztagarriena baino handiagoa den bitartean, ezingo da eredu energetiko ekologikoago baterako saltoa egin, nahiz eta erregai fosilak agortzeaz egon eta mendi ugari txikitu haize-errotak jartzeko^[30].

Desazkundearen kontzeptua, beraz, zilegi den arren, utopikoa da ez bada kapitalismoaren desgitearen markoaren pean ulertzen. Eta Kapitala, harreman soziala den heinean, ez da merkatuaren sinonimo huts bat: gure zibilizazioaren antolakuntza-zutarrien multzoa da, Estatua eta familia instituzioak ere barne hartzen dituena.



***Sozialismoaren aldeko iraultza
internazionalaren premisa historikoa
berreskuratzea da, iraultzaileontzat,
urgentziazko egitekoa. Are gehiago
gizadiaren etorkizuna bidegurutzet
batean aurkitzen den honetan***

URGENTZIAREN AUZIA ULERTZEKO BI MODU; BASAKERIAN SURF EGIN EDO SOZIALISMOA ERAIKI

Gaurdanik ekin beharreko egoera batean utzi du gizakia krisi ekologikoak. Sozialdemokrazia historikoak defendatu izan duen su baxuko sozialismorako trantsizioaren garai historikoak jada ez du zentzurik. Horretaz jabeturik proposatzen du Andreas Malmek^[31] *leninismo ekologikoaren* kontzeptua, aktibismo klimatikoaren orientabide izan nahi duen printzipioen multzo bezala.

Malmek mahai gainean jartzen duen adieraren arabera, leninismo ekologikoak esan nahi du:

- Sintomen krisiak kausen krisi bihurtzea, hau da, krisi ekologikoa kapitalismoaren krisi politiko bihurtzea.
- Pazientziarik eza bertute estrategiko bilakatzea, aukerarik txikienaren aurrean ekiteko printzipio moduan.
- Populazioaren zati batek besteari bere borondatea indarrez inposatzea, irizpide politiko ekin-tzaile moduan.

Esan beharra dago, leninismo ekologikoaren adiera hau deigarria bada ere, Malmek, jarraian, iraultzarako aukera-baldintzarik egon daitekeelako ideia alboratzen duela. Komunismoaren proiektuaren gainbehera historikoak ekarri du, modu zuzenean zein zeharkakoan, planteamendu politiko erradikalen ulermen markoa Estatuaren eta herri- eta langile-mugimenduen arteko harreman dialektiko batera mugatzea. Horrek, parlamentutik kanpoko politika-eremuak nahitaezko adiera defentsibo bat hartzea dakar, eta fase ofentsiboa derrigorrez estatu kapitalistak ezarritako aukera-baldintzetara mugatzea. Horrek, onenean, borroka erradikalen exigentzien integrazio burgesa ekartzen du, eta, txarrean, fase defentsiboaren betiketze ezdeus bat.

Sozialismoaren aldeko iraultza internazionalaren premisa historikoa berreskuratzea da, iraultzaileontzat, urgentziazko egitekoa. Are gehiago gizadiaren etorkizuna bidegurutze batean aurkitzen den honetan.

Kapitalismoaren krisi-egoera aldeaniztunaren aurka, hiru hipotesi posible aurreikusten dira:

- Kapitalismoa errentagarritasun-iturri berrien bitartez hedapen-ziklo berri batean sartzea. Hau da, karbonoarekiko dependentzia murriztuz eta Laugarren Industria Iraultzaren bitartez.
- Kapitalismoa bando geopolitikoaren arteko erabateko gerra-egoera batean sartzea, erregai fosilen kontrola eskuratzeko (krisi energetikoaren ondorioz) edo krisi klimatikoak eragindako kalteak kanpora ateratzeko.
- Sozialismoaren proiektu historikoa nazioartean zabaltzea eta kapitalismoaren kontrako paradigma historikoa biziberritzea.

Nolanahi ere hiru hipotesiek asko dute espekulaziotik, eta horietako bat edo beste gauzatzeko probabilitateak oso ezberdinak dira. Hala eta guztiz ere, itsu egongo ginateke gerra-egoera baterako aukerak mundu-mailan gora egingo dutelako hipotesia baztertuko bagenu. Gure garaiari dagokio, ordea, hirugarren hipotesia bideragarri egitea eta komunismoaren printzipio estrategikoak nazioartean hedatzea. Helburu horri ez badiogu heltzen, basakeriaren olatuetan surf egin besterik ez dugu egingo, gizadia eta natura bera etengabe birrintzen dituen zibilizazio-eredu anker honen existentziarako eskubidea onartuz. ●

ERREFERENTZIAK

- [1] Marx, K. (1968). *Manuscritos: economía y filosofía*. Alianza Editorial.
- [2] Ibid. 141, 142, 143; Natura “gizakiaren gorputz inorganikoa” delako ideia ongi garatzen da lan hauetan: John Bellamy Fosterren *La ecología de Marx* liburuaren barruan *La verdadera cuestión terrenal* kapituluaren edo Alfred Schmidten *El concepto de naturaleza en Marx* liburuko La mediación histórica de la naturaleza y la mediación natural de la sociedad kapituluaren.
- [3] Foster, J. B. (2004). *La ecología de Marx: materialismo y naturaleza*. Editorial El Viejo Topo; Foster, J. B. (2020). *The return of nature: Socialism and ecology*. NYU Press; Saito, K. (2022). *La Naturaleza contra el Capital*. Bellaterra. Besteak beste.
- [4] Schmidt, A. (2011). *El concepto de Naturaleza en Marx*. Siglo XXI.
- [5] Malm, A. (2018). *On the use of Opposites: In Praise of Polarisation, The Progress of This Storm* liburuan.
- [6] Clark, B. Foster, J.B. (2023) *El robo de la naturaleza*. Bellaterra.
- [7] Ideia hori, Saitok frogatzen duen moduan, Liebigengandik dator; haustura bat gertatzen da nutrienteen zikloa hirien ugaritzea dela-eta, kontsumitzen diren baliabideak ez baitira lurrera ongarri gisa itzultzen, eta baztertuak dira. Saito, K. (2022). *La Naturaleza contra el Capital*. Bellaterra
- [8] Foster J.B., Clark, B., York, R. (2010). *The ecological rift*. Monthly Review Press. 126. or.
- [9] Saito, K. (2022). *La naturaleza contra el capital*, Bellaterra. 22. or.
- [10] Foster, J. B. (2022). *Capitalism in the Anthropocene: ecological ruin or ecological revolution*. NYU Press.; Foster, J. B., Clark, B., & Holleman, H. *Capitalismo y robo: la expropiación de la tierra, el trabajo y la vida*; Foster, J. B., & Clark, B. (2020). *The robbery of nature: capitalism and the ecological rift*. Monthly Review Press.; Foster, J. B., Clark, B., & York, R. (2011). *The ecological rift: Capitalism's war on the earth*. NYU Press; Saito, K. (2022). *El Capital en la era del Antropoceno*. Ediciones B.
- [11] Hansen, J. (2010). *Storms of my grandchildren: The truth about the coming climate catastrophe and our last chance to save humanity*. Bloomsbury Publishing USA. 4. or.
- [12] Richardson, K., Steffen, W., Lucht, W., Bendtsen, J., Cornell, S. E., Donges, J. F., ... & Rockström, J. (2023). *Earth beyond six of nine planetary boundaries*. Science Advances, 9(37), eadh2458.
- [13] Intergovernmental Panel of Climate Change, ingelesezko siglen akronimoa.
- [14] IPCC (2021). *Climate change 2021- The physical science basis. Interaction*. Reyes, L. G., Almazán, A. (2023). Decrecimiento: del qué al cómo. Icaria.
- [15] Lotura: <https://www.diariodemallorca.es/cultura/2023/05/16/antonio-turiel-cobre-toca-techo-87414644.html>
- [16] Santiago, E. (2023). *Contra el mito del colapso ecológico*. Arpa.

- [17]** McLennan, M. (2024). *The global risks report 2024 19th edition*.
- [18]** Lotura: <https://www.cronista.com/economia-politica/javier-milei-en-el-foro-de-davos-el-discurso-completo/>
- [19]** Saito, K. (2022). *El Capital en la era del Antropoceno*. Ediciones B.
- [20]** Lotura: <https://www.bolsamania.com/noticias/empresas/imaz-repsol-davos-tenemos-repensar-nuestra-politica-energetica--15884686.html>
- [21]** Goitiandia, M. (2024). *Marx eta 4.0 Industria; Inteligentzia Artifiziala*. Arteka
- [22]** Rifkin, J. (2019). *The Green New Deal: Why the fossil fuel civilization will collapse by 2028, and the bold economic plan to save life on earth*. St. Martin's Press.
- [23]** Lotura: <https://www.mckinsey.com/featured-insights/mckinsey-explainers/what-are-industry-4-0-the-fourth-industrial-revolution-and-4ir>
- [24]** Meadows, D. H., Meadows, D. L., Randers, J., & Behrens, W. W. (1972). *Los límites del crecimiento: informe al Club de Roma sobre el predicamento de la humanidad*. Fondo de cultura económica.
- [25]** Hobsbawm, E (2019). *Historia del siglo XX*. Crítica. 263-264. or., 545. or.
- [26]** Arrighi, G. (2009). *Adam Smith en Pekín*. Ediciones Akal.
- [27]** Latouche, S. (2003) *Would the West actually be happier with less?* Le Monde Diplomatique; eta Latouche, S. (2005) *Can Democracy solve all the problems?* International Journal of Inclusive Democracy; erreferentziatut hartuta Foster, J. B. (2022). *Capitalism in the Anthropocene: ecological ruin or ecological revolution*. NYU Press.
- [28]** Meszaros, I. (2001). *El orden de la reproducción metabólica del capital. Más allá del Capital*. Vadell Hermanos
- [29]** Carlos, T. (2012). *En defensa del decrecimiento: Sobre capitalismo, crisis y barbarie*. Catarata.
- [30]** Lotura: <https://www.ultimahora.es/noticias/local/2023/05/14/1935391/antonio-turiel-del-csic-negocio-energias-renovables-burbuja-del-ladrillo.html>
- [31]** Malm, A (2020). *El murciélago y el capital. Coronavirus, cambio climático y guerra social*. Errata Naturae.

Argitalpena
2024KO URTARRILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia



